


# Noaua!!



BECera joateko  
autobusa antolatu da



Zubeldia anaiak  
omenduko dituzte larunbatean



**Etorn ezagutzera** **Olar-Goxo**  
ETIKETAK


**HARATEGIKO** ERREKETAHARRA  
BASERRIKO TXARRAL URDINA, BEHI  
TOLUETAK, EREKOKO ARIKUNEA ETA  
ETXERAN EGINDAKO PRODUKTUEN  
ALURRA ZABALA.

**URDAITEGIKO** ERREKETAHARRA  
OHOLU ETA EGOSTIRAKO  
URDINAZPIKIDAK, EREKOKO ETA  
KANTOKO-GRIZAK, URDAITEGIKO  
PRODUKTUEN ALURRA, EDERRA.

**FRUTADENDA** ERREKETAHARRA  
BESTAKO BARRAZKO ETA RUTEN, SESEKIO,  
FABEGARAK, DEIAK KALITATE  
HANDIENAK, ERKA SERBITZU-HOBES-  
TASAKIN ETA NEURRIKIN PREZIOETAN.

Zubiaurrena, 3 • 943 36 55 81 • 40170 Urrbail

**50** JAKIN, NIRE  
KULTURAREN  
JAIROKIA.



# Jakin

## haizea dakiten orriak

Harpidetzu zaitez eta oparia jasoko duzu  
deitu: 943 718097  
Idatzi: [jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)  
Ikusi: [www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro  
Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD baten

**"50 VRTE"**

Azken Mende erdiaren ibilbide historikoa,  
bertso jarri eta musikatueta eman.

**XABIER AMURIZA** **MIXEL DUCAU**




**AZAROAREN 10ean • GAUEKO 10etan**  
**SUTEGI kultur etxeko aretoan**  
**USURBILEN**

ANTOLATZAILEAK: PUNTAPAN haurzaindegiko guraso elkartea,  
NOAUA kultur elkartea eta BOTA PUNTUBA.

ORGANIZATZAILEAK **Noaua**  
NOAUA Kultur Elkartea

**"50 VRTE"**

## Badok Amairu !

# Aitor Udabe: "Ez naiz inor miretsi zalea"

**A**itor Udabe batek baino gehiagok musika instrumentu batekin irudikatuko dute. Tarte honetan, ordea, beste bi zaletasun aitortu ditu. Mendira joan eta bidaia zalea gustuko du.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.  
Txipiroiak tintan.

2. OHITURA TXARREN BAT.  
Berandu oheratzea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELEAN?  
Mugikorra.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?  
Nigan. Zertarako aldatu?

5. ZERI DIOZU BELDURRA?  
Bakardadeari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.  
Ez naiz inor miretsi zalea.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...  
Lagunik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.  
Tourmaletara Tourreko etapa bat ikustera joatean, 17 km-tako ibilbidea egin genuen hozkailua bizkar gainean hartuta.

9. LIBURU BAT.  
Joe Simpsonen "Tocando el vacío".

10. FILM BAT.  
"En el nombre del hijo".



11. LEKU BAT.  
Kanada.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.  
Kalezarko kaxkoa.

13. URTARO BAT.  
Negua.

## Noaua !

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

ETXERAT!EN ELKARRETARATZEA **5. OR.**

OLATZ ALTUNAREKIN SOLASEAN **6. OR.**

XABIER AMURIZA SUTEGIN **9. OR.**

ZUBELDIA TALDEAREN EGUNA **10. OR.**

ALBISTE LABURREN TARTEA **12. OR.**

NOAUA! TXIKI **14. OR.**

ESKUBALOI TALDEKO KADETEAK **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JAKOBA ERREKONDO

## Ikurrez ikur

Usurbilen, Atsobakarren, geure lurrean iltzatua dugun McDonalds-en ikurraz aritu nintzen aurreragokoan eta mataza oparoa duen hari berari tiraka nator gaur.

Dagoenerako ezagunak dira maiatzeroko Sagardo Egunean gure artean izaten diren Kantabriako Sagardoaren Kofradiako Lagunak. Geure tankeran sagardoaren kultura sustatu asmoz, Zubietako herri-jaien garaisu horretan, Kantabriako Escalanten Sagardo Eguna antolatzen dute urtero. Urtero, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kide batzuk auzolanera joan ohi gara. Kantabriako panoraman... bertako folklorezale eta abertzale ugari biltzen duen jaia da. Aurtengoan, sagardoa edatera ematen ari zen gazte batek paparrean zeraman pegatinak begiak lotu zizkidan. Hurbildu zen batean bertatik bertara ikusi eta pegatinaren mezuaz jabetzean aurpegian nabaritutako zitzaidan, nonbait, harridura... beretik kendu eta neri itsatsi zidan pegatak, honela zioen: "Boicot McDonalds" eta marka horren logotipoa zakarrontzian sartzen zuen imaginean. Inguruko bailara batean jarri nahi duten "jatetxea" irekitzea galeraztearen aldeko kanpaina bat omen. Kantabrian. Tokitan gaude hemen! Tokitan bai gu!

### GEURE TOKIAN

Aginagan badugu beste ikur bat. Aginaga goian. Aginaga goi-goian. Aginagako goiko muturrean. Aitzasaten. Aitzasate lau bat mila urteko gure aurrekoen errito eta mitoen baratzat

da. Itsasoa eta errioa, Aginagatik barrena lotzen dituen atea da Aitzasate. Aginagako toki magikoa eta gure historiaren lekuko ederrenetakoa.

Okurritu ez zaio, bada, aginagar bati, hantxe, Aitzasaten bere erlijio partikular eta apartekoaren ikur ikaragarri bat jo eta jartzea! Kristaua omen dela jakin dugu behintzat! Demarri haundia baino handiagoko porlanezko hanka baten gainean, urrutira dir-dir agiri diren altzairu herdoilezinezko hiru beso dituen animaleko gurutzea sartu digu, kristauak, gure historiaren ariman. Kristauean oso zabaldua den gaitzak jota, honek ere denok bera bezalakoak garela edo beharko genukeela usteko du. Egin duenak, orain dela ehunen bat urte mendi-tontor guztietan gurutzeak jartzeko elizak egin zuen gurutzada tamalgarri hura dakarkit gogora. Gure toki magiko eta errito-baratzat guztiak konkistatu, besteoi lapurtu eta bere, soilik bere bihurtu. Errespetoa, besteoi batez! Eta lotsarik gabe, gure Kultura hutsaren hurrengoa zaio. Berea beti gainean. Eta elegantzia arrastorik gabe gurutzean, ederki ikusteko moduan bere izena jarri du.

Paisaia duen eragina eta geure Ondareari egindako erasoa eta kaltea neurtu ote ditu gurutze hori hor jartzea ametitu duen agintariak? Astakeria hau agintariren batek baimendu ote du?

Portzierto, jarritako gurutzea erori egin omen zen, ia-ia bere "nagusia" azpian harrapatuz. Lehen hura lurrean etzana dago, zabor, eta aldamenen altxatuko bigarren gurutzea da oraingoa.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

### Ika-mika

## "Erraustegia Zubietan" gezurraren jarraipena (eta II)

Europako Batasunak zaborra kudeatzeko betebeharrak batzuk ezarriak ditu, eta gainera orden batean bete daitezkeen agintzen du. Zeintzuk dira betebeharrak horiek?

1. Zabor gutxiago sortzea, kontsumoa neurtuz, gauzak berrerabiliaz ahal den neurrian.

2. Birziklapena bultzatzea, lehentasuna materiala berreskuratzeari emanez eta ez energia berreskuratzeari.

3. Birziklatu ezin daitekeen materialari energia ateratzea. Erraustegia jartzeko helburua duten politikariek, aurretik dagoenari muzin egin eta zuzenean hona jotzen dute baina bere erara moldatuz. Nahiz eta Europako Batasunak materiala berreskuratzeari lehentasuna eman, gure politikariek, berriz, energia lortzeko aitzakiarekin, zaborren kudeaketa guztia erraustera bultzatu nahi dute, aurreko bi betebeharren aurka joanez.

Politikariek, errauste sistema saldu

nahian, "balorizazio energetikoa" hitza erabiltzen dute bolo-bolo, baina ez digute esaten Europar Batasunak ez duela errausteko balorizazio bezala onartzen; izan ere, prozesua osotasunean hartuz gero, energia gehiago behar da gerora sortuko dena baino, eta hori horrela da prozesu guztia optimizatuta egonda ere, inoiz gertatzen ez dena.

4. Zabortegi beharra gutxitzea. Zabortegiak beti beharko dira, baita erraustegia jartzen bada ere. Hauen beharra gutxitzeko, modu bakarra dago; zaborra gaika biltzea, baita zatirik nagusia ere, hau da, materia organikoa. Horrela eginez gero, gehiago birziklatzea lortuko da, eta birziklatu ezin den zatia txikiagoa izango da.

Bukatzeko esan beharra dago Gipuzkoan erraustegi bat edo bi jartzea ez dagoela politikariren esku, haiek horrela uste baldin badute ere, jendearen esku dago. Jendearen konpromisoa behar da, bakoitzak bere etxetan zaborra bereizteko, batez ere materia

organikoa eta birziklatu ezin den zatia (erretxazoa). Hori eginez gero, ez dago Gipuzkoan politikaririk erraustegia jartzera ausartuko denik. Etxeko lanak egiteko prest egonez gero, udaletxe bakoitzari eskatu behar zaio gaika egindako bilketa antolatze-ko. Eskatzearekin nahikoa ez balitz, jendearen mobilizazio bidez, behartu egin behar ditugu bilketa mota hauek ezartzera, ondorengo tratamendua erraztu dadin.

Politikariei esaten diegu, nahikoa dela hainbeste gezur, hainbeste txosten tekniko eta abarrekin. Zubietako gainetan kokatzeko azterketa egiteko arauak plazaratu dituzte. Egin aurretik ere bukaerako emaitza jakina den arren, 20,6 miloi pezeta jarri dituzte azterketa hilaibeteko epean egiteko. Plan alternatiboak aztertze ere horrenbeste diru balego, aspaldi ahaztua izango genukeen zaborraren arazoa.

Imanol Azpiroz



# Azaroaren 14an, Bordatxo pareko errotondan, euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

**A**zaroaren 14ko ekimenak bi helburu izango ditu: gaixotasun larria duten sei euskal presoen eta zigorraren 3/4k bete dituztenen askatasuna eskatzea, bate-tik; eta, preso guztien Euskal Herriratzea eskatzea, bestetik. Duela aste batzuk abiatu zen ekimenarekin bat dator Usurbilen egin den deialdia. Azaroaren 14an asteartea, ordubeteko elkarretaratzea egingo da Bordatxo pareko errotondan, arratsaldeko 19:30etik 20:30era.

Astero, eskualdeka, barauldi bat egingo da eta horren inguruan hainbat ekitaldi antolatzen dira. Pasa den astean, Sakana aldean egin zen barauldi

hori. Hurrengo astean, Buruntzaldeko eskualdeak hartuko du ekimen honen lekukoa. Baraualdiarekin bat eginez, Etixeratlek elkarretaratzeak egingo ditu Buruntzaldeko hainbat herritan. Hona egutegia: azaroaren 13an astelehena, Astigarragan. Azaroaren 14an asteartea, Usurbilen. Hilaren 15ean, Lasarte-Orian, hilaren 16an Hernanin eta, azkenik, hilaren 17an Andoainen. Usurbilen, esan bezala, azaroaren 14an asteartea egingo da elkarretaratzea. Arratsaldeko 19:30ean hasiko da eta 20:30ak arte iraungo du. Ordubeteko enkartelada hori Bordatxo pareko errotondan egingo da. Bertara azaltzeko deia zabaldu du Usurbilgo Etixeratlek.



ASTERO, ESKUALDEKA EGINGO DA PRESOEN ALDEKO BARAUALDIA.

Ika-mika !!

## Futbol zelaia dela eta

**F**utbol zelaia eraikuntza dela eta NOAUA!ren azken alean, bertako artikulista izatearen abantailak erabiliaz, Josu Aranberrik idatzi zuen artikuluari buruz zenbait kontu aipatu nahi ditugu.

Ezer baino lehen esan behar dugu atzerapenak izan direla. Zoritzarrez, horrelako obretan ohikoak bihurtu dira atzerapenak. Alkateak orain dela gutxi aldizkari honetan plazaratutako elkarriketa batean aipatu zituen arrazoi nagusiak.

Ulertzen dugu futbolari eta futbolzaleen ezinegona, eta aitortzen dugu beraien esfortzua kanpoan entrenatu eta jokatu behar izan dutelako.

Josuren idatzia argitaratu aurretik berarekin Alkatea eta Kirol Patronatuko Lehendakaria behin baino gehiagotan elkartu dira eta eskatutako informazio guztia eman. Horregatik, ezin dugu isilik

geratu Aranberrik idatzi duena irakurri eta gero. Nola esan eginiko galderei ez zaiola azalpenik eman! Futbol taldeak planteatu dituen iradokizun eta eskakizun gehienei emandako erantzuna baiezkoa izan da.

Futbol zelaia eraberriketan oztopo haundiak gainditu behar izan dira, Josu Aranberri kazetariak aipatzen ez dituenak. Garrantzitsuena, zelaia berritzearen borondatea izatea. Azken legealdietan gobernuan egon zirenak mezpresatu egingen zuten obra horren beharra, eta orain ere aurka daude. PSOErekin batera UHL-k udal aurrekontuak tribunaletara errekurritu dituela ezin ahaztu, Usurbilen sekulan egin ez dena, Eguzkitza eta Kale Nagusiko obrak ere arriskuan jarriaz.

Akatsak akats futbol zelaia alde egin dutenak gu izan gara. Ahazturik al

du, Josu Aranberrik garai hartan alkategai zen Luismari Ormaetxearekin izandako bilera, non futbol zelaia eraberriketara Eusko Alkartasunaren programan sartzea eskatu zion?

Akatsak bakarrik azaldu behar al dituzu? Eta zailtasunak, eta oztupoak, eta diputazioan egindako gestioak 400.000 eurotako laguntza lortzeko? Hori guztia dena ez al du herriak jakin behar? Zer pentsatu behar dugu, herriari ez ezik klub-eko futbolari eta futbolzaleei ezkutatatu egin diozula informazio hori?

Bukatzeko zera esan nahi dugu, futbol zelaia eraberritzearen alde ahalegin luze, neketsu baina batez ere zintzoa egin dugula.

Trabak traba Usurbilgo kirolaren eta herriaren alde lanean jarraituko dugu.

Usurbilgo Eusko Alkartasuna

## Olatz Altuna, 18/98 delakoan auzipetua

# “Epaiketa Aste Santura arte luza daiteke”

**A** metsgaiztoa duela urtebete hasi zen; azaroaren 21ean, hain zuzen. Geroztik, goitik behera aldatu zaio bizimodua Olatz Altunari. Eta Olatzi bezala, 18/98 epaiketan auzipetuak izan diren guztiei. Gehienez, urtebete iraungo zuela uste zuten denek. Baina urtea pasa da eta tunelaren amaieran oraindik ez da argirik ikusten. Aste Santura arte luzatuko dela mentalizatzen hasia da Olatz. NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan, eskerrak eman nahi dizkie babesa eman dioten guztiei, bereziki, Usurbilgo 18/98+ Lan Taldekoei.

NOAUA! Duela urtebete hasi zen 18/98 bezala ezagun egin den epaiketa. Egunak, asteak, hilabeteak... azkar pasatzen dira. 18/98 epaiketako auzipetuentzat ere azkar pasa al da urtea?

Olatz Altuna. Atzera begira, gogorra izan da baina nahikoa azkar igaro da urtea. Une hau bereziki gogorra da, epaiketak asko jota urtebete iraungo zuelakoan geundelako. Baina urtebete pasa da gorabehera eta nahaste-borraste askorekin eta oraindik ez dakigu noiz bukatuko den. Hori da okerrrena. Ikusiko da epaiketako hurrengo faseak nola planteatuko diren baina beharbada ez dugu epaiketaren erdia ere pasa oraindik. Aste Santua, ekaina ere iritsi daiteke.

N. Okerrena, beraz, noiz bukatuko ote den ez jakitea izango da.

O. A. Ikusten genuen epaiketak ez zuela aurrera egiten, baina abokatuak esaten hasi dira beste sei hilabete egon gaitzkeela bueltaka. Eta hori kristoren kolpea izan da guretzat. Egoera berdinean planteatzen da, gainera. Astelehenetik asteazkenera Madrilera joan behar. Astelehenean goizeko laurak aldera atera eta asteazken iluntzean itzuli.

Orain arte bi fase igaro dira: lehenean, gure deklarazioak hartu dituzte;

bigarrenean, lekukoak hitzak bildu dituzte.

Hirugarren fasean gaude orain. Peritoen txanda da. Guardia Zibilak pasa dira eta orain Polizia Nazionalea eta Ertzaintza pasa behar dute. Gero dokumentazioaren fasea dator eta, azken fasean, auzipetuok azken deklarazioak egiteko aukera izango dugu.

N. Nola, zein eratan baldintzatu du epaiketa honek zure eguneroko bizimodua?

O. A. Lan arloari dagokionez, egoera hau oso latza da. Batzuk lana galdu dute. Beste asko enpresarekin nolabaiteko akordiora iritsi gara. Nire lantokian oso jarrera ona izan dute nirekiko. Aurreikuspena urtebetekoa zen baina hau luzatzen ari da eta berriro aztertu behar dira gauzak. Dena den, kasuistika ezberdinak daude.

### OLATZ ALTUNA

“Herri mugimenduei laguntza ematea; hori da Joxemi Zumalabe fundazioaren zeregin nagusia”

N. Zumalabe fundazioko kide izateagatik zaude endredu honetan. Memoria arina denez, hitz gutxitan bada ere, azalduko al diguzu zein den Zumalabe fundazioaren zeregina?

O. A. Herri mugimenduei laguntza ematea; hori da Joxemi Zumalabe fundazioaren zeregin nagusia. Herrietako talde eta mugimenduei, arlo ezberdinetan aritzen direnei: talde ekologistak, emakume-taldeak, antimilitaristak... Euskal Herria oso aberatsa da herri mugimenduetan. Fundazioa, hain zuzen, talde lokalei, txikiei laguntzeko osatu zen. Hasiera batean, boskote bat hasi zen lanean, gero handitu egin zen



ASTELEHENETIK ASTEAZKENERA,  
MADRILERA JOATERA BEHARTUTA  
DAGO OLATZ ALTUNA.

taldea eta patronatu batek Joxemi Zumalabe fundazioa sortu zuen. Hil berria zen Joxemi Zumalaberen oso lagunak ziren sortzaileak eta bere izena jarri zioten fundazioari.

Fundazioak lan-ildo ezberdinak jorratzen ditu. Bata, formazioa litzateke. Herri mugimenduetan, formazio mailan gabeziak ikusi ziren eta ikastaro batzuk antolatzen ditu fundazioak. Dirulaguntzak ere banatzen ditu ikastaro horiek egiten dituztenei. Ikastaroak antolatzerakoan, taldeengana jo genuen, ze beharrak zeuden ikusi asmoz, eta niri tokatu zitzaidan hori egitea. Guk egiten duguna horrela laburbildu daiteke: herri mugimenduari lagundu eta herri mugimenduen arteko elkar ezagutza sakondu. Topaguneak ere egin izan ditugu eta aldizkari bat ere argitaratzen dugu, Fite boletina, talde ezberdinen ekimenen berri ematen duena. Euskal Herriko herri mugimenduen gida ere argitaratu du fundazioak.

**N. Deklarazioa egin zenuen tribunalaren aurrean. Argigarria izan al zen?**

O. A. Nik sentsazioa neukan deklarazioa, tribunalari baino, Euskal Herriari begira zela, eta prentsak jaso zezakeen horri begira. Hasieran, ideia horrekin zoaz, tribunalari esatera guk herri mugimenduetako taldeekin egiten dugula lan. Eta akusazioak ez duela ez hanka ez bururik. Esfortzu horretan konturatzen zara ez dela beraien hizkuntza, herrieta-ko herri dinamikak, taldean lan egitea... arrotza zaien kontua da. Saiatzen gara gauzak azaltzen baina oso zaila da mezua heleraztea. Espainian eta atzerrian behintzat zabaldu da zein absurdoa den hau guztia.

**N. Eta lekukoen lana, argigarria izan al da? Askotan, kanpokoei beste status bat eman ohi zaie.**

O. A. Argigarria izan da, lekuko asko pasa direlako. Ez dute ezer arraroa esplikatu behar izan. Bizitzeko modu bat dugula, herri antolakuntzan oinarritutakoa, herrigintzaz hitz egin zaie, nazio eraikuntzaz... Uste dut hori guztia iritsi zaiela, nahiz eta euren aldetik esfortzu

handia ez egin. Baina badugu zalantza bat, ea ote duten hau guztia ulertzeko borondatea.

### OLATZ ALTUNA

“Atzerrian, behintzat, zabaldu da zein absurdoa den hau guztia”

**N. Su-etenarekin, epaiketa bertan behera geratuko zen itxaropena piztu zen. Baina ez da hala izan. Ez dakit zuek aldaketarik nabaritu ote duzuen.**

O. A. Bai, su-etenak horrelako itxaropen bat piztu zuen. Hau konpontzeko bidean da eta hor dauden auziak ere izango dute horrelako ondorio baikor bat. Baina gatazka gogorrenetan ere ez da ezer gertatu. Presoekin, adibidez, izugarritzko itxaropena genuen baina ez da ezer gertatu. Gurea gogorra da baina benetan latza dena da urtetan eta urtetan presoekin gertatzen ari dena. Euskal Herrian piztu zen itxaropen hori, baina

sala barruan ez zen ezer aldatu. Are gehiago, egoera gogortu egin da. Bereziki, baimenak eskatzeko garaian. Jarreran ere, tratua gogorra da.

**N. Larunbatean, BECeko jaialdian, auzipetuei elkartasuna adierazteko aukera izango da. Herrian ere, badira lanean dabiltzan hainbat lagun. Hori pozgarria izango da.**

O. A. Bai, dudarik gabe hori oso garrantzitsua da. Babes handia sumatu dugu. Herri mailan sortu diren plataformetan ikusi da benetan auzitan jartzen dena Euskal Herrian bizitzeko modua dela, nazio eraikuntza, biltzeko eta mugitzeko eskubidea, ezberdin pentsatzeko eskubidea... Plataforma hauek egin duten lana goraiatzekoa da eta bereziki Usurbilgo taldearen lana nabarmendu nahiko nuke, oso lan majoa egiten ari dira. BECekoa dela eta, jende asko lanerako prest azaldu da eta horrek indarra ematen digu. Hori oso garrantzitsua da. Egunero nabaritzen da, eta horrelakoetan gehiago.

IMANOL UBEDA

## BECeko jaialdira joateko autobusa antolatu da

**E**skuek libre idazten jarrai dezaten, eztarriek ozen kanta dezaten, belarriek iritziak libreki entzun ditzaten, begiek askatasunez so egin dezaten, beharrezkoa da sorkuntza munduak bidegabekeria hauek irmoki salatzea». Lehengo astean, kirol eta kultur munduko ordezkariak esandako hitzak dira. Miramar jauregian egin zen ekitaldian, epaiketaren aurka orain arte egindako ekimenekin eta aurrerantzean izango direnekin bat datozela adierazi zuten Itziar Ituiño eta Ramon Agirre aktoreak, Miramar jauregian bildutako guztien izenean.

Azaroaren 11n, Fermin Muguruza zuzenean izango da berriz, 2 urte eta gero. Berarekin batera DAM palestinarrak, La Banda del Surdo kataluniarrek eta Bad Sound System irundarrak izango dira. Kultura eta kirolaren alorretik 18/98 auziaren «bidegabekeria» salatu eta jaialdiarekin bat egin asmoz, agerraldia egin zen lehengo astean Donostian.

Aktoreek ez ezik, Kirmen Uribe eta Harkaitz Cano idazleek, Jon Maia eta Xabier Silveira bertsolariek eta hainbat musikaririk bat egin dute auzipetuen aldeko jaialdiarekin, besteak beste, Sorkun kantariak, Betagarri taldeko abeslari Iñaki Ortiz de Villalbak, Neubateko Libe Garzia de Kortazarrek, Las Vulpeseko Mamenek eta Izate taldeak. Baita kirol arloko lagunek ere; Realeko Leire Landa, Mikel Aranburu, Igor Jauregi eta Mikel Labakak, Athleticen Roberto Martinez Tiko-k, Ellande Alfaro pilotariak, Oskar Astarloa errugbilariak, Kepa eta Eneko Acero surflariak.

### Sarrerak salgai

Tick tack ticket-en erosi daitezke tiketak (ticktackticket.com webgunean) eta baita beste hainbat dendetan ere: Donostiako Elkar megadendan edo Foto Ikatzan (Donostiako Gipuzkoa plazan). Gainera, kontzertura iristeko metroak zerbitzu berezia eskainiko du



GAZTE ERAGILEEK ERE BAT EGIN DUTE BECeko JAIALDIAREKIN.

eta 4.000 autorentzat aparkalekua izango da Barakaldoko BECen.

### Autobusa Usurbildik

Usurbilgo 18/98+ lan taldeak autobusa antolatu du. Udaletxe aurretik aterako da autobusa 17:30ean. Kontzertua amaitzean bueltatuko da autobusa BECetik. Ikasle eta langabetuek doan izango dute autobusa. Izena emateko zerrendak tabernetan jarrita daude.

# Sutegi beteta, Joseba Tapiaren emanaldian

**O**stiral gaueko 22:30ak pasatxotik, Sutegi zaletuen eta kuriosoen bilgune bihurtu zen. Denak ere, Joseba Tapiaren bakarkako lan berriko abestiak entzuteko prest. **NOAUA!** Kultur Hamabostaldiko ekitaldiak auditorioa bete zuen.

Leporaino bete zen, azaroaren 3ko gauean Sutegiko auditorioa. Bakarka Joseba Tapiak aurkezten zuen "Real Politik" lan berriaren emanaldiak herriko zein inguruetatik etorri zirenak bildu zituen. Hortaz jabetua zen Tapia bera. "Ongi etorri usurbildar eta beste nazioetatik zatoztenak" zioen kontzertua haserakoan.

Oso doinu ezberdinak entzun ahal izan ziren. Erritmo brasildarrak, "Madrilgo Lagunak" abestian entzun zen Espainiako ereserkiarekin nahastu ziren. Abestutako letratan ez zen kritikarik falta izan. Esaterako, Elizari egin-dakoak.

Kantu eta kantu tartean, jotzera zihonan abestien aurkezpen edo sarrerak bertaratutakoen txalo zaparradekin nahas-



JOSEBA TAPIAK "REAL POLITIK" BAKARKAKO AZKEN LANA AURKEZTU ZUEN SUTEGIN.

ten ziren. Eta baita irri ugarirekin ere. Aurrean zuen mikrofonotik mezu ironiko eta kritiko ugari helarazi zituenen. Trikitixa soinuarekin nahi duena egin dezakeela argi utzi zuen.

Harrera on horren adibide, taula gainetik azken agurra eman, ezkutatu eta publikoak hala eskatuta, eskainitako

beste hiru abesti.

NOAUA! Kultur Hamabostaldirako Sutegin geldialdia egin ostean, lan berria aurkezteko birarekin aurrera darrai Tapiak. "Real Politik" eta bertako abestiek zeresana ematen segiko dute.

ARITZ GORRITI

## Kultur hamabostaldia, iruditan !



### Lehen ekitaldian, umorea nagusi

**L**asarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolaren saioarekin hasi zen NOAUA! Kultur Hamabostaldia. Urriaren 31n eskaini zuten narkolepsia.com antzezlan eta 75 lagun bildu ziren Sutegiko auditorioan.



### Magia saio ederra

**P**untako artista da Txan. Lehengo larunbatean Sutegira gerturatu ziren asko aho zabalik geratu ziren Txanen abileziarekin. Aldez aurretik bagenekien, horregatik antolatu genituen bi saio.



# Xabier Amuriza eta Mixel Ducauren saioarekin amaituko da NOAUA! Kultur Hamabostaldia

**L**arunbat honetan amaituko da NOAUA!k antolatu duen Kultur Hamabostaldia. Aparteko saio batekin bukatuko da, gainera. Xabier Amurizak eta Mixel Ducauk eskainiko duten saioa hala izango baita, aparta. Duela 28 urte Puntapax haurtzaindegikoak antolatu zuten jaialdiaren haritik iritsiko da Sutegiko saioa. Gogoan izan, azaroaren 10ean gaueko 22:00etan hasiko dela Amuriza eta Ducauren ekitaldia.

“50 urte”. Xabier Amurizak eta Mixel Ducauk eskainiko duten saioaren izenburua da. Azken mende erdiaren pasarteetaz arituko dira, bertso musikatuaren bitartez. Asko izango dira hizpide izango dituzten kontuak: euskara, herriko istorioak, gai politikoak, gai sozialak...

Sarrera 3 eurotan eskura daiteke NOAUA!n, eta egunean bertan Sutegin. NOAUA!ko bazkideentzat sarrera doan. Baina bazkideek azaroaren 9a baino lehen erretiratu beharko dute dagokien sarrera.



AMURIZAREN EMANALDIAN MIXEL DUCAUK ERE HARTUKO DU PARTE.

Zer diyo? !

## Puntapax haurtzaindegia

**O**ker ez banago, 1972. urtearen inguruan haurtzaindegi bat ireki zen Usurbilen. Gero, sei bat urte beranduago, bere legalizazioa lortu zen eta Puntapax izena jarri zitzaion.

1976an, 23 haur zeuden sei hezitzairenen zaintzapean. Orduko haur haiek gaur 28-32 urte dituzte. Beharbada, ongi letorkieke haurtzaindegiaren historia apur bat jakitea, ez dugu, ordea, dena kontatuko, bizpahiru pasadizo baizik.

Puntapax 1981ean itxi egin behar izan genuen, zorraz zorren ganean eta inondik laguntzarik ez zetozeelako. Udarregi Patronatuak ere ez zuen haurtzaindegia bere barnean txertatu nahi izan, besteak beste, zama ekonomikoa zelako. Udaletxeak ere ez zuten ezer jakin nahi. Beraz, gurasoak eta hezitzaileak bakar-bakarrik geratu ginen.

Hau gutxi ez eta herritar askok ez zuen 0-3 arteko heziketan sinesten, -zer ikas dezake haurrak 6 hilabete dituenen? -“Sumar eta...” ikasteko txikiegiak ez al dira bada? -Ama batek nola utz dezake horren haur txikia haurtzaindegi batean abandonatuta, etxetik kanpora lana egin nahi duela eta...?

Antzeko esaldiak barra-barra entzuten “kailua” egin zitzaigun Puntapaxeko gurasoei, eta zenbait amari, kulpabilitate konplexua ere zamatuta bide izan zitzaion.

Tira! Gaur pozik sentitzen gara egin genuenaz, guzti hartaz ez gara damutzen. Gaur, ez zaio haurtzaindegia deitzen 0-3 arteko haur heziketari, gaur, Haur Eskola deitzen zaio. Ez dago gaizki. Aurreratzen ari gara. Oraingo gurasoek ez dute konplexurik izango haurra Haur Eskolan uzteagatik. Gaur badakigu 0-3 urteko haurra zaindu ez ezik hezi ere egin daitekeela eta egiten dela.

Norbaitek galde dezake, -eta nola iraun zuen haurtzaindegia horrenbeste denbora? Bada, gurasoen eta andereñoen eten-gabeko lanari eta ardurari esker. Nork daki zenbat kantaldi, dantzaldi, taberna eta “txiringito” antolatu genituen Usurbilen! Zenbat, Egan musika taldeak emandako dantzaldi... Ordea, bat berezia antolatu genuen, Galarretako jaialdia. Aurten, azaroaren 11n, 28 urte beteko dira Puntapaxeko gurasoek hura antolatu genuenetik. Jaialdi hartan, Xabier Amurizak bertso jarriak kantatu zituen, “Hernialderi jarriak” hain zuzen.

Azpillaga eta Lopategi izan zituen laguntzaile. Ondoren, Gontzal Mendibil eta bere taldeak abestu zuen. Zinta edo Kasete bat ere atera genuen jaialdiaren grabazioarekin, eta herritar askok erosi zigen. Gogora dezagun Amurizak Aginagako zubiari kantatu zizkion bertso eder haietatik hartutako honako pasarte hau: ...”Pistoleroren batek ez banau asaltatzen gauerdian, etxe berri bat egin behar dut Aginagako zubian.”

Orain berriro gatzokizue Puntapaxeko guraso batzuk, NOAUA!koekin eta Bota Puntubakoekin batera, Sutegin jaialdi bat antolatzera. Duela 28 urte, Galarretako jaialdian kantatu zituen bertso jarri haien ibilbide historiko bat egingo du Amurizak, Mixelen laguntza paregabearekin.

“50 urte” izena du jaialdi honek. Azaroaren 10ean gaueko 22:00etan izango da emanaldia.

Orduko haur haiek bereziki deitzen ditugu jaialdi honetara, guk, ezinbestean, haurtzaindegian “abandonatuta” uzten genituen haur haiek...

Mikel Usabiaga

# Haimar Zubeldia

## “Denboraldiari aprobatu altu bat emango nioke”

**Z**ubeldia txirrindularien lagunak larunbat honetan bilduko dira Aginaga sagardotegian. Urtero ospatu ohi duten bazkari honetan izango dira Joseba eta Haimar Zubeldia ere. Bazkaria larunbatean izango dela esan dugu baina aldezturik eman behar da izena Txiriboga tabernan: azaroaren 9an osteguna amaituko da izena emateko epea. Menua sagardotegikoa izango da eta txartelak 25 euroko prezioa izango du. Bazkaria aitzakia hartuta, San Estebanen bildu gara Euskaltel-Euskadi taldeko bi txirrindulariekin. Dagoeneko entrenatzen hasi direla aitortu digute.

**NOAUA!** Atzera begira jarrita, zer moduzkoa izan da amaitu duzuen denboraldia?

Haimar Zubeldia. Denboraldiari aprobatu altu bat emango nioke. Tourrera ondo ailegatu nintzen. Horren ostean, ez dago prestaketetarako denborarik. Donostiako Klasikan ere ondo egon nahi nuen eta hala egon nintzen. Espainiako Itzulian, kontratuen gorabeherak tarteko, agian, burua lasterketan bakarrik ez nuen izan.

### JOSEBA ZUBELDIA

“Denboraldiko zaporea gozoa baino gazia izan da; ia hurrengo hobea den”

Joseba Zubeldia. Ez dut oso denboraldi txukuna izan. Suitzako eta Alemaniako itzulietan gustura ibili nintzen. Baina, Holandakoan erori eta horrek denboraldi amaiera zertxobait zapuztu zidan. Denboraldiko zaporea gozoa baino gazia izan da. Ia hurrengo hobea den.

**N. Zer txirrindularirekin osatuko zenukete denboraldiko podiuma?**

J. Z. Podiuma, UCI Pro Tourreko



SAN ESTEBANEN LASTERKETETAN BAINO LASAIAGO IZATEN DIRA.

sailkapen orokorrari begiratuta egingo nuke. Valverde izan da denboraldia markatu duena. Samuel Sanchez bigarren postua emango nioke eta hirugarrena, Bettiniri. Munduko txapelduna izan baita.

**H. Z.** UCI Pro Tour sortu zenean, haien helburuetako bat denboraldi guztiko podiuma egitea zen. Bertan, egun bakarreko klasikak eta itzuliak sartzen dira. Puntu gehien lortzen dituenak, hor dago. Bettini egun bakarreko klasiketan onena dela eta itzulietan ondo moldatzen dela ikusi da. Lider izatera iritsi liteke eta etapa garaipenetan ere, sprintean eta beste motatako ihesalditan ere irabazi ditu. Txirrindulari handia.

**N. Azken unera arte, kontratuarekin gora behera dezente izan dituzu. Nola bizi izan duzu prozesu hori?**

**H. Z.** Espainiako Itzuliarekin batera egokitu zen. Negoziazio guztiak gogorak dira. Hala izango zela hasieratik nekien. Berotasunean gauzak esan ziren. Haiek haiena defendatu dute eta nik neurea. Azkenean, gustura nago eta horrekin geratzen naiz. Badakit, aurrerantzean negoziazioaren bat etortzen bada, berriz ere gogorra izango dela.

## “Gatazkatsua izan da denboraldia, ia gauzak lasaitzen diren”

**N. Dopingaren aurkako operazioak ilundu zuen denboraldia.**

**H. Z.** Nahiko gatazkatsua izan da denboraldia. Batez ere, Tourraren hasieran eta Espainiako Itzulian. Orain, badirudi, dena artxibatu egin dela eta azkenean, dena txapuza bat izan dela. Ia gauzak lasaitzen diren eta denok jarraitu dezagun pedalei ematen; azkenean, hori baita gure lana.

**N. Txirrindularien aurka joateko interes berezia egon dela uste dute batzuek.**

**H. Z.** Agian, gure artean batasunik ez dagoela ikusi dute. Herrialde ezberdinetako txirrindulariak gara eta denak ados jartzea zailagoa da. “Operación Puerto” zabaldu zenean, beste kirolari batzuk ere tartean zeudela zioten. Eta azkenean, txirrindularitzako izenak bakarrik aterata dira. Horregatik diot txapuza bat izan dela. Azkenean, begira non geratu den. Orain, txirrindulariei egindako mina ia nork ordaindu behar duen.

# “Bide bazterrean gaizki pasatzen ari zarenean, jasotako animoak asko eskertzen dira”

N. Orain lasaitasun egoeran zaudete. Etapa garaietan, zer botatzen duzue faltan?

H. Z. Denboraldian murgilduta gaudenean, azkenean, bizikletan bakarrik pentsatzen dugu. Bizikleta gainean ez zauden momentuan deskantsatzen izaten gara. Horregatik, bizitza normalean egin ditzakezun gauzak ez dituzu egiten; lagunekin afaldu, bikote lagunarekin mendira joan... Orain, aldiz, hilabete pasatxoko oporraldia dugun honetan, gauza horiek guztiak egiten ahalegindu gara. Guztia egiteko denborarik ez dugu, baina galdutako denbora berreskuratzen saiatzen gara. Gauza sinpleak dira, baina egiterik ez daudenean gehiago baloratzen dira.

J. Z. Lasterketa garaian, ia egun guztiak karrera eta entrenamenduei zuzenduta daude. Egun guztiak berdintsuak dira. Edozein txorakeri, pintxo bat jatera tabernara joatea, guretzat ezohikoa da. Hori denboraldian zehar faltan botatzen da. Orain, egiten dira gauza horiek. Une hauetan, gauza horiek guztiak egiteko askatasuna duzu eta azkenean, aste hauetan ere lanpetuta izaten gara.

## HAIMAR ZUBELDIA

“Aste honetan hasi gara berriz ere lanean, gimnasioan eta bizikletan”

N. Gonzalez de Galdeano: “Taldea buruak bai, baina taldea da lehentasuna”. Denboraldi berriari begira esanda, koarekin ados zaudete?

J. Z. Taldean sartu denetik zabaldu nahi izan duen filosofia da. Mayo, Haimar... liderrak beti izan dira. Aurrerantzean ere, agian, talde izaera gehiago nabarmendu daiteke, baina taldea beti egon izan da eta gero ere hor egongo da.

H. Z. Prentsan talde lana behar beza-

la ez egitea leporatu zaigu. Ez nator guztiz bat. Igorren sarrerarekin talde lana bultzatu da, norbanakoen parean. Ondo iruditzen zait, denon onerako baita. Errealitatera eramaten bada, ziur denoi on egingo digula.

N. Denboraldi berria noiz eta non hasiko duzue?

H. Z. Aste honetan hasi gara berriz ere lanean, gimnasioan eta bizikletan. Dakiguna da, denboraldia beti bezala Mallorcako itzulian hasiko dela, otsaila hasieran. Ez dakit bertan izango garen. Hil amaieran jakingo dugu bakoitzaren denboraldi egutegia zein izango den.

J. Z. Egutegia ziur ez badakigu ere, ez dut uste bioi gehiegi aldatuko zaigunik. Haimarren helburu nagusia, ziur aski, Tourrean zentratuta izango da. Aurretik, beste helburu batzuk tartekatuta daitezke. Nire kasuan, berriz, alderantziz. Dagoeneko entrenatzen hasi naiz. Nire helburua denboraldi hasieratik ondo hastea izango da.

N. Euskaltel-Euskadik zer nolako erronkak ditu denboraldi berriari begira?

H. Z. Azkeneko urteetan ikusitako aldaketa handienak izan dira. Korrikalari garrantzitsuak joan eta progresio handia erakutsi dutenak ere etorri dira. Orain, ez dago Iban bezalako txirrindularirik. Taldean oinarrituta bere hutsunea betetzen saiatu dira. Beste erronka; ahal bezain beste garaipen lortzea.

J. Z. Txirrindulari garrantzitsu batzuk joan dira; Mayotik hasita. Esperantza ematen duten gazteak eta esperientzi gehiagoko jendea ere etorri da. Figura bat joan da eta ez da beste figura batekin bete. Baina ia hutsunea, haiek dioten bezala, talde lanarekin betetzen den. Garaipen aldetik, aurtengoa berdintzea ez da erraza izango, kalitate handiko garaipenak lortu baitira. UCI Pro Tourreko lehen hamasei postuetan sailkatzea nahiko dute.



TOURREAN BIKAIN ARITU ZEN HAIMAR.

N. Oraindik urruti bada ere, profesional gisa, txirrindu gainera jaisteko eguna iritsiko zaizue. Zer egingo zenukete ordutik aurrera?

H. Z. Aurtentzara, bederatzigarren urtea egin dut. Orain, beste bi urtetarako kontratua sinatu dut. Nire burua jarraitzeko gai ikusten dut, baina jada pentsatzen hasita nago. Hala ere, oraindik ez dut oso argi.

J. Z. Mundu hau nik erabakitakoa uztea nahiko nuke. Une honetan, zaila dela ikusten dut, horretarako ere izena behar baita mundu honetan. 23 urte arte ikasten egon nintzen, horrekin lotuta lan egitea gustatuko litzaidake.

## Larunbatean, ospakizun giroan

N. Zaletuek bazkaria antolatu dizute. Eskertzekoa izango da, ezta?

H. Z. Kanpoan zaudenean, bide bazterrean gaizki pasatzen ari zarenean jasotako animoak eta herrian bertan egin duten jarraipena asko eskertzen dira. Larunbatean egingo dugu bazkaria. Hor ere denak ondo pasatzen dugu. Giro lasaigoan, ospakizun giroan. Urteko tentsioak ahaztuta.

J. Z. Kanpoan lehiatzen dugunetan karrera askotara joatea zaila dela badakigu. Usurbilera jaistean, jendeak beti galdetzen du zer moduz doakigun, gaizki badoa beti animatzen... Hori eskertu egiten da.



## Hildako bat eta bi zauritu larri Txikierdiko auto istripuan

**E**rrepideak, beste behin ere, berri txarrak utzi dizkigu. Azaroaren 2an ezbehar larria gertatu zen N-634 errepidean, Txikierdi parean. Bi autok aurre aurre jo zuten. Ondorioz, auto gidarietako bat hil egin zen. Bi usurbidar larri zaurituta eraman zituzten Donostia Ospitalera.

Errepidean ezbehar larria gertatu zen azaroaren 2an. Donostiako gizon bat hil eta Usurbilgo bi lagun larri zauritu ziren. Txikierrdin jazo zen istripuak utzitako balantze tristea da.

Ezbeharra gaueko 22:05 aldera gertatu zen, N-634 Txikierrdiko bidegurutzetik gertu bi autok aurrez aurre jo zutenean. Ondorioz, bi auto gidariak harrapatuta geratu ziren. Suhiltzaileek atera behar izan zituzten.

Gertakariaren berri jaso eta berehala, Ertzaintzaren eta Larrialdiei Aurregiteko Zerbitzuaren patruila batzuk bertaratu ziren. Biktimak erreskatatu eta ibilgailuak bidetik atera artean, Ertzaintzak trafikoa Zubietatik bideratu zuen. Horren ostean, Donostia ospitalera eraman zituzten. Zaurien larritasuna zela eta, ospitalera iritsi eta gutxira hil zen gizonezko donostiarra.

Ertzaintzak ezbeharra argitzeko ikerketa abian jarri du.



AZAROAREN 6AN, N1  
ERREPIDEAN ATERATAKO IRUDIA.

### N-1 kolapsatua

N-1 errepidean istripuren bat gertatzea ia eguneroko kontua bihurtu da azken aldian. Herrizaingo Sailak jakinarazi zuenez, azaroaren 6an, eguerdiko 12:15 aldera, Gasteizerako noranzkoan kamioi batek eta auto batek elkar jo zuten. Ondorioz, kamioia irauli eta barruan zeramatzan teilak errepidera erori ziren. Hiru lagun zauritu ziren eta Donostia Ospitalera eraman zituzten. Bidea garbitzeko lanek ia hiru ordu iraun zuten.

## Irakurriaz, gozatzeko aukera Yolanda Arrietarekin

**I**rakurriaz, asko ikasi daiteke. Literaturaren bidez, une atseginak igaro daitezke. Denborapasa gisa aisialdiko ekintza gozagarri ere bihurtu daiteke.

Horrekin lotuta, Usurbilgo Udal Liburutegiak ekimen interesgarria antolatu du; irakurketaz gozatzeko tailerra. 0-6 urte arteko haurren gurasoei zuzenduta dago. Gurasoek haien seme-alabei literatura mundura hurbiltzeko saiakera izango da.

Yolanda Arrieta idazleak koordinatuko du literatur-tailerra. Hiru izango dira haur literaturara hurbiltzeko Yolanda Arrietak eskainiko dituen saioak. Hil honetako ostiral arratsaldetan izango dira; azaroaren 10ean, 17an eta 24ean, arratsaldeko 14:45etik 16:15era.



## Erleari buruzko erakusketa Sutegin

**E**rle Egunaren bezperan zabaldu zen erleari buruzko argazki erakusketa Sutegin. Azaroaren 15a bitartean ikusgai jarraituko du Erlearen Lagunak elkarteak antolatutako duen erakusketa honek. Astelehenetik ostiralera zabalik izango da Sutegiko erakusketa gela, arratsaldeko 16:00etatik 19:30era.

## Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa

**P**ello Añorga ipuin kontalaria Sutegin izango da azaroaren 10ean. 20 urte egin ditu ipuin kontalari lanetan. Usurbilen maiz izan da. Azaroaren 10ean ostirala, udal liburutegian eskainiko duen saioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da. 4 urteko haurrei zuzendutako saioa eskainiko du. Sarrera doan.

## Azaroaren 18an, antzerkia Sutegin

**G**aztetasunak erabiltzen nau, Ghal du izena Nafartarrak Kultur Taldeak antolatu duen antzerki saioa. Mattin Irigoienek idatzitako lana taularatuko du Amikuzeko Kitzikazan/k taldeak. Antzerki saioa azaroaren 18an izango da, gaueko 22:00etan. Sarrera 5 eurotan izango da salgai Txiribogan.

## Julian Urkiola, Erle Laguna taldeko kidea

# “Parte hartzea arrakastatsua izan zen”

**G**ozo-gozo. Bertaratutakoek eta antolatzaileek halako zaporea izateko, osagai guztiak izan zituen azaroaren 5ean ospatu zen VIII. Erle Eguna; parte hartze handia, eguraldi bikaina eta produktu gozoen salmenta ona. Gozozaleek izan zuten zer ikusi, zer erosi eta zer dastatua. Eztigileek VI. Ezti Lehiaketa buruan. Aurpegi ezagunez jositako epaimahaiak, azken hitza. Antolatzaileak dagoeneko datorren edizioari begira daude.

Jendetsua izan zen igandean, azaroak 5, ospatu zen VIII. Erle Eguna. Eguraldia lagun, asko izan ziren Dena Plaza eta pilotalekuan zeuden postuetara hurbildu zirenak. Balantze oso positiboa egin dute antolatzaileek. Eguraldi onak lagunduta, “parte hartzea arrakastatsua izan zen” adierazi du Julian Urkiola Erle Lagunak taldeko kidea. Salmenta postuetakoek ere asko saldu zutela baieztatu du Urkiolak.

Herritarrek postuetan zehar, nonahi, batzuk ikusten, besteak erosten. Giro ezin hobea. Herritar adina erle ez zen izango baina postutik postura hegan, osteratxo bat egiten ari zirenen artean, frontoitik alde egindakoren batzuk... Nonahi aurki zitezkeen erleak.

Aurtengo berrikuntzen artean, Pirritx eta Porrotx pailazoak zeuden. Haurrei ezta yogurtarekin banatu behar zieten. Pirritxek ezin izan zuen etorri, gaixo baitzegoen. Porrotxek lan dezente izan zuen. “Aritzeta parerainoko ilarak zeuden, haurrak haien gurasoekin” baieztatu du Urkiolak.

Eguerdi partean, VI. Ezti Lehiaketa ospatu zen. Lorebaker eta loreanitz motako ezti potoak lehiatzen dira. Aurtengoan, guztira, 76 eztiak parte hartu zuten. Lorebakarren artean, legazpiar bat saritu zuten; Anastasio Mujika. Loreanitzen atalean, Pasai Donibaneko Aitor Zabalen ezti gailendu zen. Hala erabaki zuen pertsona ezagunez osatuta



JENDE UGARI BILDU ZEN ERLE EGUNEAN, ASKO ETA ASKO AUTOAK APARKATU EZINIK IBILI ZIREN.

zegoen epaimahaiak. Bertan ziren, Martin Berasategi eta Hilario Arbelaitz sukaldariak, Martin Alustiza pilotaria, Niko Lizeaga aktorea edota Arantxa Kalzada kazetaria.

### JULIAN URKIOLA

“Euskal Herrian  
Erle Eguna erreferentziakoa  
izatea nahi dugu”

Ezti irabazleak enkantera atera zituzten. Bi ezti potoak Juanjo Mendioroz Herri Irratiko gastronomia kritikariak eraman zituen, 2.300 euroren truke.

Ordizian gaztaren inguruan egiten den lehiaketa ezagunaren pare jarri nahi dute antolatzaileek Usurbilgo Erle Eguna. “Euskal Herrian erreferentziakoa izatea nahi dugu” adierazi du Urkiolak.

### 2007koan pentsatzen

2006ko edizioa igarota, IX. Erle eguna buruan darabilte antolatzaileek. Adibidez, bertaratu nahi dutenentzat aparkalekuak jartzea. Oraindik gauza-tzeke badaude ere, haurrei zuzendutako

eskaintza indartzea, egun horri begira baserritarrez janzteko ohitura hedatzea eta lehiaketetan Elizatik frontoira jaitsi izan den erlea motorizatzea. Buruan darabilten ideietako batzuk dira. Bestalde, egun horretako egitarauaren barne antolatzen diren lehiaketak zabaldu nahiko lituztekete. Aldaketa horiek guztiak ikusteko 2007ko Erle Eguna arte itxaron beharko dugu.

### Argazki lehiaketako lanak Sutegin ikusgai

Erle Eguneako ospakizunak, ordea, ez dira amaitu oraindik. Argazki Lehiaketan saritu, eta oro har, parte hartu zuten herritarren irudiekin erakusketa bat osatu baita. Tartean, epaimahaiak hala erabakita, lehiaketako hiru argazkirik hoberenak daude. Pasionaria, duela urte batzuk azokan ateratako argazkia eta ezti goilararekin ezta ogira botatzeko unean ateratako irudiak.

Azaroaren 15a arte zabalik izango da erakusketa Sutegin. Astegunetan, 16:00-19:30 artean.

# Usurbilgo herriari gure gauzak kontatu nahi dizkiogu

### Kaixo lagunok:

Udarregi ikastolako umeak gara, bost urte ditugu, eta Usurbilgo herriari gure gauzak kontatu nahi dizkiogu. Asko gustatzen zaigu jolastea, ikastolan, herriko plazan eta parkeetan ere bai. Hala ere, gure ikastolako patioan gustatuko litzaiguke **zuhaitz batzuk aldatzea**, bertan zintzilikatu ahal izateko, eta horietako batzutan etxetxo bat "zuhaitz etxea". Patioan ere iturri bat jartzen badiguzue, bestela barrura sartu behar dugu egarria dugunean.



Frontoian eta herriko plazan oso ondo pasatzen dugu, baina txarre-na da, euria egiten duenean ez dakigula non jolastu, frontoian pilotan ibiltzen dira eta batzuetan jo egiten gaituzte.

Festetan oso ondo pasatzen dugu, baina Inigo, txupinazoak beldurtu egiten du. Datorren urterako erraldoi eta buruhandiak gure neurrikoak eta berriak nahi genituzke, deabrua, sorgina, akerra eta tximua pixka bat zaharrak daudelako. Txerri buruhandia patinetan, sukaldaria, patata burua eta tomate burua,



buruhandi politik izango lirateke. Zezen gorpilduna ere asko gustatuko litzaiguke.

Puzgarriak, buruhandiak, margo lanak, pailazoak eta abarrekin asko dibertitzen gara.

H.H. 5

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA**  
**BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Aritzitxoa 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14, ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Zendoia**



Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

**txirriStra**

KONTSEJU ZAHARRA 13  
943 360 400

pintxoak  
ogitartekoak  
platea konbinatuak

**TABERNA**

**I l t s r t z**

---

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439



# Kadete mailako neskak onenen artean dira

**A**urten bai! Usurbil Kirol Elkarteko kadete mailako nesken eskubaloit taldeak Gipuzkoako txapelketako azken fasea jokatu du. Azken momentu arte sailkatzeko aukerekin izan ondoren, iaz multzoko hirugarren postua eskuratu zuten eta azken fase honetatik kanpo gelditu ziren. Aurten, ordea, Nerea Agudok eta Patxi Bengoetxeak zuzendutako neskak bikain ibili dira denboraldi hasiera honetan eta onenen artean izango dira.

Iaz urte polita osatu ostean indarberrituta hasi dute 2006-2007 denboraldia kadete mailako neskek. Iaz kadete mailan Espainiako txapelketan lau onenen artean izan zen Aiala Zarautz taldearen aurkako lehen partida galdu bazuten ere, hurrengo bost partidak irabazi dituzte, eta azken fasea jokatzeko txartela lortu dute herriko neskek.

Zumaiaiko Pulpo taldearen aurka Zumaian jokaturako neurketan pasa zuten estuasunik handiena. Partidan zehar atzetik joan ziren markagailuan, baina azkenean 18 eta 20 irabazi zuten. Oiaro kiroldegian Andoaingo Leizaran taldearen aurka jokaturakoa izan zen, berriz, partidarik onena. Aurreko urteetan lehia bizia izan dute talde honekin eta usurbildarrek 26 eta 18 irabazi zuten 5. jardunaldian.

Iazko taldearekin alderatuz aldaketa



KADETE MAILAKO ESKUBALOIT TALDEA GIPUZKOAKO ONENETAKOA DA.

batzuk izan dira jokalarien artean. Lauzpabost jokalaria mailaz igo dira denboraldi honetan, baina infantil mailatik igotako neskak asko izan dira. Pasa den urtean infantil mailan Udarregi ikastolarekin Gipuzkoako eskolarteko txapelketa eskuratu zuten aurten kadete mailara igo diren neskek eta Euskadiko eskolarteko txapelketan txapeldunorde izan ziren. Horrez gain, hauetako batzuk kadete mailako taldearekin aritu ziren zenbait neurketetan.

Nerea Agudo eta Patxi Bengoetxea entrenatzaileak duela bi urte Gipuzkoako eskolarteko txapelketan 2. postua eskura zuen ia talde berarekin ari dira lanean. Orduan Zarauzko ikastola-

ko nesken aurka Urnietan jokaturako finala galdu zuten. Aurten ere, Gipuzkoako txapelketako azken fasean Zarauzko talde hori bera izango da favorito nagusia, herriko taldea lehen jardunaldian gaintitu zuen bera hain zuzen ere.

Bestalde, infantil mailan Udarregi ikastolako taldean Gipuzkoako eskolarteko txapelketa jokatzeko ari diren Andoni Loiti eta Ander Orena maila bereko Euskadiko aurre-selekzioko zerrendan daude. Azaroaren 12an Getarian izango den entrenamendurako 21 hautatuaren artean daude bi usurbildarrak.

JOSU ARANBERRI

## Asteburuan futbola Harane futbol zelaian

**U**rtebete baino gehiagoko hutsunearen ondoren, asteburu honetan futbol partidak ikusteko aukera izango da Harane futbol zelaian. Belar artifiziala jarri zutenetik aste batzuk pasa badira ere, aldagelak eta sarbide egokia jartzea falta zen besteak beste, eta behin behineko arazo horiek konpondu dituztenez Usurbil Futbol Taldea bere futbol zelaira itzuliko da etxeko partidak jokatzera.

Larunbatean arratsaldeko 15.30etan izango da lehen hitzordua. 1. Errejional mailako taldeak Union Txiki taldearen aurka jokatu du eta sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko partida irabaztea izango dute helburu. Pasa den

asteburuan 2. postuan kokatuta dagoen Zumaiaiko taldearen aurka itxura ona eman zuten Zubietan. 2-0 irabazten hasi ziren, baina azkenean 2-3 galdu zuten. Larunbatean aurrez aurre izango duten taldea 12. postuan kokatuta dago sailkapenean usurbildarrek baino 6 puntu gehiagorekin.

Igandean, berriz, 1. Jubenil mailako taldeak Zarautz K.E. taldearen aurka jokatu du Haranen 15.30etatik aurrera. Herriko jokalaria gazteek 5 eta 2 galdu zuten pasa den asteburuan Oriokoren aurka eta igandean 3 puntuak lortzeko aukera izango dute multzoko azkenaren aurka.

## Iñaki Errasti, Arkotera

**I**ñaki Errasti Arkoteko entrenari izango da datorren denboraldian. Komunikabideen arabera Astillero utzi eta Arkoteko taldean arraun egingo dute aginagarriak eta Mauricio Monteserin asturiarrak. Bertan duela bi urte Astilleron taldekide izan zuten Popi Gonzalez izango dute entrenatzailea eta ondo bidean ACT ligan ikusiko dugu berriz ere Iñaki Errasti urte gogorra pasa ostean. Izan ere, pasa den denboraldian Astilleroekin Kontxako banderari izan bada ere, ACT ligatik kanpo izan da Kantabriako ontzia.

## “Eman bostekoa”, *bullying* delakoari aurre egiteko tresna interesgarria

**A**zkenaldian, *Bullying*-a hedabideetan asko entzuten ari den kontzeptua da. Salaketak orain gutxikoak diren arren, horrelako egoerak ikastetxe barruan eta eremu horretatik at betidanik bizi izan dira. DBHko lehen zikloko ikasleei zuzendutako “Eman bostekoa” didaktika materialak horrelako kasuak prebenitzeko baliagarri izan nahi du.

*Bullying*-a gai konplexua da. Are gehiago, adin zailean bizi diren nerabezeroak protagonistatzat dituenen. “Eman bostekoa” didaktika materialaren bidez, horrelako egoerak eragiten dituzten aurrekari eta ondorioei buruzko ikuspegi zabala eman nahi da. Pluraltasuna errespetatzeko jarrera eta balioei lotutako ezagutzak eskaintzen ditu. Guztia, *bullying* kasuak prebenitzeko. Inoiz, berandu izan ez dadin.

Bi film laburrez eta *making of* batez osatutako DVD bat da. Bi gazteren istorioak kontatzen dira. Daniel eta Elene dira protagonista nagusiak. Daniel lasaia, lagunkoia eta iskanbilarik gustuko ez duen gaztea dugu. Lasaitasun hori beste ikaskide batzuen aldetik jasotzen dituen jazarpenek hausten dute. Isekak etengabeak dira.

Elenek ere antzeko egoera bizi du. Pertsona irekia, lagun asko dituen da, baina batzuek begi txarrez ikusten dituzte bere jarrera batzuk. Etxean gaixo dagoela baliatuta, bere ikaskide batzuek Elene baztertzeko kanpainari ekin diote.

Ikus daitezkeen bi istorio horiekien batera, DVD-ak *making of* bat dakar. Daniel eta Elene pertsonaiak hezur-mamitzen dituzten aktoreek, haien paperei buruz duten iritzia berri ematen dute.

*Bullying*-a jasaten duten edozein gazteren egoerak islatzen ditu DVD-



ak. Jazarpen fisikoa eta askotan, are okerragoa den jazarpen psikologikoa. DBHko lehen zikloko ikasleei zuzenduta dago. Material horrek laneko fitxa batzuk dakartza eta irakasleentzat gida didaktikoa da. Ikasleen artean gaiari buruzko eztabaida bultzatu eta zabaltzeko helburua du. Betikoak izan diren egoerak aurreikusi daitezten.

### Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 9, osteguna  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 10, ostirala  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 11, larunbata  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 12, igandea  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 13, astelehena  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Azaroak 14, asteartea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 15, asteazkena  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 16, osteguna  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 17, ostirala  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 18, larunbata  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 19, igandea  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ.  
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11, Hernani.  
943 336 077 (Urte osoan).

Urte osoko goardiako farmaziak [www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean

### Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
7:55\*/9:30(T)/13:15(T)/  
14:35\*(T)/19:15(T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\*/9:00/12:45(T)/  
13:45\*/18:45

LARUNBATETAN  
Zubieta-Donostia  
8:15(T)/12:45/  
15:15(T)/21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T)/14:30(T)/21:00(T)

JAI EGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
11:25(T)/13:30(T)/15:30(T)/  
21:35 (T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T)/13:00(T)/15:00(T)/  
21:00 (T)

\* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 • ASTEASU  
© 943 69 68 52 • 620 800 186

JOSUE  
ARANZAZISTROKI  
**IGELTSEKITZA  
eta  
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalejar  
Telf: 606 37 21 05

**MIKEL IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

943 365 095  
609 068 111

5013 ARRI ETXEA 37 KALEJAR

## Agenda !

### Azaroak 8, asteazkena

- Xabi Telloren sukaldaritza ikastaroa Santueneko Ibai Ondo elkartean. Antolatzailea: Santuene Elkartea.

### Azaroak 10, ostirala

- Pello Añorga ipuin kontalaria 18:00etan Sutegi udal liburutegian. Sarrera doan. Norentzat: 4 urteko umeentzat.

- Xabier Amuriza eta Mixel Ducau, "50 urte" bertso emanaldia. Sutegin, gaueko 22:00etan. Sarrera, 3 euro. NOAUA!ko bazkideentzat, doan. Antolatzailea: NOAUA!. Babeslea: Usurbilgo udala.

### Azaroak 18, larunbata

- "Gaztetasunak erabiltzen nau" antzerkia Sutegin. 22:00etan. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea.

### Azaroak 19, igandea

- Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia. Goizeko 9:00etan frontoitik abiatuta.

## Hitzaldi berri bat Santuenea elkartean

Urriaren 27an hasi zen "Emozioen mundua" izeneko hitzaldi sorta Santuenean. Izar Arregi psikologoak emakumeei zuzendutako ziklo honek jarraipena izango du datorren azaroaren 10ean. "Bizitzaren zikloak" izeneko hitzaldia 15:15 ean hasi eta 16:45ean amaituko da. Hitzaldia, noski, Santuenea elkarteko egoitzan egingo da.

## Literaturaren txokoa !

### "Bat, bi, Manchester"

Ezinezko amodio baten kontaketa da Bat, bi, Manchester, nobela laburrentzako Augustin Zubikarai saria irabazi duen lana. Batetik, itzultzaile diharduen baina idazle izan nahiko lukeen kontalaria dugu: homosexuala, uzkur samarra, porrot batetik irten berria; bestetik, Aitor: dena beti erraza izan zaion mutil guapoa, aktorea, heterosexuala. Halabeharrak elkartu ditu Manchesterren eta elkarrekin bizi dira etxe berean; adiskide-



tasun estua sortuko da bien artean, baina desira bete ezinaren itzala sumatuko da uneoro.

Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Augustin Zubikarai nobela laburren lehiaketan Irati Jimenez idazlea gailendu zen.

Irati Jimenez Uriarte Mundakan jaio zen, 1977an, eta Barakaldon bizi da gaur egun. Kazetaritza ikasi zuen eta lanbide horretan dihardu EITBn ordezkapenak eginez. Liburu bat egina du orain baino lehen: Malcolm X haurrentzako biografia, Txalaparta argitaletxeak plazaratua.

## Usurbildarrak pozik Urdiñarben

Urtero bezala, Zuberoako Urdiñarben izan berri dira usurbildar pilotari gazte-  
txoak. Ander Mangas, Ander Osa, Oihan Rekondo eta

Markel Galarragak saio polita osatu zuten Urdiñarben. Estelarrean, Enrike Huizi aritu zen. Sagardo-afari batekin amaitu zen festa.



**ERRAZKIN**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
kale Nagusia, 1  
Tel./Faxo: 943 365 125  
Mobi: 629 420 565 - 649 435 470

Industri eta iragarki  
**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**  
**OSU**  
943 371 954

**MAHUKA**  
ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 361 106  
Llemin aurkituko duzu  
gizon eta emakumezkoen  
**MODAKO ARROPA**



## ETXEBIZITZA

- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzaragaña 5 zenbakian garaje bat dauka salgai. 943 361 219.
- Zubiaurrenea 2 zenbakian berrituta dagoen lokal bat alokatzen da. 658758237.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanean. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakiak:

943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak dauzkat salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. Interesatuak deitu 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilas-koak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu 664774024 telefono zenbakira.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

## Txerrimunik ordaintetan !



**Zorionak Maddi!**  
Zorionak eta muxu potolo bat zure zortzigarren urtebetetzean, lagun guztien partez eta bereziki Ametsen partez.



**Zorionak Danel!**  
Beti alai eta pozik zaude, gu ere, zoragarria zarelako. Patxo goxo bat etxekoan partez zure lehen urtebetetzean, muak!!

## JAIOTAKOAK

- Saioa Chaneli Guerra Franco, urriaren 28an.

## HILDAKOAK

- Joxpinixi Roteta Labaka  
Azaroaren 6an hil zen  
82 urterekin Aginagan.



**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

Zuen  
publizitatea  
hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

## ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Telefona: \_\_\_\_\_  
E-posta: \_\_\_\_\_  
Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.



**JOSE AZPURUA**  
**UNANUE**

TELATUAK • FATXADAK  
Pintura kalera - 154, Lizarra-Olita  
943 36 12 83  
Olatza kalera 14, Asteasu  
943 69 68 02

**URDANTZI**

943 32 72 64  
649 43 54 75  
649 43 54 76

**ERRAZKIN**

943 372 679  
943 365 125  
629 420 565  
649 435 470  
urki-mitxak@euskaltel.net

**Josue**  
**Aranzazistroki**

943 360 530  
606 372 105  
JOSUE@GMAIL.COM J. KORTAZAR

**Antonio**  
**URRUZOLA**

Tel: 943 376 415  
Faxa: 943 360 510  
Asteasuain Industrialea, 3

**BEREZIARTUA**  
**S.L.**

egarra eta  
egur-aluminiozko  
leioak - eskailerak  
Aginaga 943 371 571

**BARRENETXE**

Solkamendi Arrog. Imanol  
Tel. 943 362 664  
Faxa 943 374 002  
Barron Elxe Kalea  
ZUBIETA

**Javier**  
**Orbegozo**

Gasa-berokuntza  
659 602 789  
Erreka txiki 13, Bask

**Jose txo**  
**Ikatzeta**

687 951 225

**Lataillade**

gasa, berogintza  
klimatizazioak eta  
mantenimendua  
609 888 021

**portularrume**

Bainuko altzairuak  
Manparak  
943 364 637

**JOSEBA**  
**ARANGUREN**

943 830 072  
659 883 912

**andoni**  
**MARCOAK**

605 702 517  
Arrantzale p. 8-2º

**fernando**  
**PINTURAK**

en papela ketak  
lurzorruak...  
943 366 019

**IZAGIRRE**

943 365 095  
609 068 111  
Gara 424, ETXEA 37  
KALEZAR

**ARGILAN**

Jose Luis Borda Zugasti  
Industria instalazioak kontrolatzen  
943 361 380  
629 272 859  
Borda Berr 5 lizea

# Ofizioen gida

IGELTSERITZA

ARROZTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROKITA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • [publizitatea@noaia.com](mailto:publizitatea@noaia.com)



➤ **www.noaia.com** ➤  
usurbildarren zerbitzura

